## 2010eko AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

**Saila:** 10 TOKI ADMINISTRAZIOA ETA LURRALDE OREKA

**Programa:** 14 SUTEEN PREBENTZIOA, ITZALTZEA ETA SABALMENDUA

## LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2010

**Departamento:** 10 ADMINISTRACIÓN LOCAL Y EQUILIBRIO TERRITORIAL

**Programa:** 14 PREVENCIÓN Y EXTINCIÓN DE INCENDIOS Y SALVAMENTO

## SAILAREN MEMORIA

### I. MEMORIA

Programa honen helburu zehatza da Arabako Lurralde Historikoan ahalik eta hoberen ematea Su Itzaltze, Prebentzio eta Salbamendu Zerbitzua. 4 azpiprogramatan dago banatuta.

1.- Eskualdeko parkeak eraikitzea (SISEU).

Azpiprograma honen barruan aldatu egin da Arabako Lanak-i Aguraingo SISEU eraikitzeko eman zitzaion kudeaketa lanak egiteko agindua. Lan horiek burutzeko epea luzatu da, zenbateko bera mantenduz, eta 2011ko otsailaren amaierarako prest egotea aurreikusi da.

Halaber, hasieran eman zen epea luzatu bada ere, Santikurutze Kanpezuko SISEU proiektua industrigune bateko lurzatian dago eta hemen behin baino gehiagotan atzeratu dira urbanizazio lanak. Beraz, ezinbestean atzeratu da lanen burutzapena eta, ondorioz, SISEU hori eraikitzeko luzapen berria eman behar da: 2011ko abenduaren 31ra artekoa.

Beste alde batetik, Arabako Lanak, S.A. enpresari agindu zaio Legution SISEU berria eraikitzeko proiektua hirugarrenek idazteko zeregina.

2.- Parkeak kudeatzea

2010eko ekitaldian Laudion dagoen suhiltzaile etxearen mantentze lanetan laguntza eman da, Suteei Aurrea Hartzeko, Suteak Itzaltzeko eta Salbamendurako Aiarako Partzuergoa eratzeko estatutuetan xedatutakoaren arabera, gastu arrunten eta inbertsioko gastuen % 100eko ekarpena eginez.

Herri babeseko boluntario taldeen gastuak

## MEMORIA DEL DEPARTAMENTO

### I. MEMORIA

El objetivo específico de este programa radica en prestar de forma óptima el Servicio de Extinción y Prevención de Incendios y Salvamento en el Territorio Histórico de Álava. Se subdivide en 4 subprogramas.

1.- Construcción de Parques Comarcales (UCEIS)

Dentro de este subprograma, se modifica la encomienda de gestión realizada a Arabako Lanak para la construcción de la UCEIS de Agurain/Salvatierra, ampliando el plazo de ejecución y siendo el importe el mismo, estando prevista su entrada en funcionamiento a finales de febrero de 2011.

Asimismo, no obstante, a pesar de la ampliación del plazo inicialmente concedida y debido a que el proyecto de UCEIS de Santa Cruz de Campezo se encuentra ubicado en una parcela perteneciente a un polígono industrial cuya urbanización ha sufrido reiterados retrasos, la ejecución de las obras se ha visto irremediablemente demorada, motivo por el cual procede a conceder una nueva prórroga para la construcción de la mencionada UCEIS, fijada hasta el 31 de diciembre de 2011.

Por otro lado, se procede a encomendar a Arabako Lanak, S.A. la redacción por terceros del proyecto de construcción de una nueva UCEIS en Legutiano.

2.- Gestión de parques

Durante el ejercicio 2010 se ha colaborado en el mantenimiento del Parque de Bomberos situado en Llodio según lo estipulado en los Estatutos para la Constitución del Consorcio para la Prevención y Extinción de Incendios y Salvamento de Ayala mediante la aportación del 100% de los gastos generados, tanto corrientes como de inversión.

Se destinaron fondos para sufragar tanto los gastos corrientes de las agrupaciones de voluntarios de

ordaintzeko funtsak bideratu ziren Añanako Kuadrillara eta Kanpezuko - Arabako Mendialdeko kuadrillara, baita boluntario horien prestakuntza gastuak ordaintzeko funtsak ere Gaubeako Udalera eta Kanpezuko - Arabako Mendialdeko kuadrillara.

Suteei Aurrea Hartzeko, Suteak Itzaltzeko eta Salbamendurako Arabako Foru Plana 2005eko martxoan onartu zen. Harrezkero hauexek izan dira jarduketa nagusiak:

- Arabako Lurralde Historikoan prebentzio, su itzaltze eta salbamendu zerbitzua egiteko Gasteizko Udalarekin sinatutako hitzarmenaren esparruan, bertan ezarritako finantzaketa eskaini da hitzarmenak berak arautzen dituen kontzeptuengatiko gastuak estaltzeko.
- Prebentzio, Su Itzaltze eta Salbamendu Zerbitzurako materiala erosi zen eta, besteak beste, honakoak gailendu ziren: Aguraingo SISEUrentzako ikusmen termikoko kamera bat, 20 lantza eta horien muntaia, lau esplosimetro, xukatzeko ponpak, konpresorea, botilak kargatzeko segurtasun armairuak, espeleoerreskaterako ekipoa, babes olanak eta zuloetatik ateratzeko ekipo bat.
- Gainera, zerbitzu horretako langileei jantzi egokiak erosi zaizkie, besteak beste: eguneko jarduketetarako buzoak, kirol ekipazioa, kaskoak eta buru berokiak.
- Era berean, 20 herri suak itzaltzen azkar jarduteko ekipamenduz hornitu ziren; ekipamenduok dagokien ekipamendua daukaten zama-atoiak dira, eta herriei utzi zitzaizkien erabil ditzaten.
- Pick-up motako ibilgailu bat ere erosi da zerbitzurako, eta horretarako behar diren ibilgailuak mantentzeko kudeaketa egin da.



protección civil tanto para la Cuadrilla de Añana y la de Campezo-Montaña Alavesa, así como fondos para cubrir los gastos de formación de dichos voluntarios para el Ayuntamiento de Valdegovía y la Cuadrilla de Campezo – Montaña Alavesa.

Una vez aprobado en marzo de 2005 el Plan Foral para la Prevención y Extinción de Incendios y Salvamento de Álava, y como actuaciones más significativas realizadas en el periodo, cabe indicar las siguientes:

- En el marco del convenio suscrito con el Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz para la prestación del servicio de Prevención y Extinción de Incendios y Salvamento en el Territorio Histórico de Álava, se aportó la financiación que en el mismo se establece para la cobertura de los gastos cuyos conceptos regula el propio convenio.
- Se procedió a la compra de diverso material para el Servicio de Prevención y Extinción de Incendios destacando entre otros, una cámara de visión térmica para la UCEIS de Salvatierra, suministro de 20 lanzas y montaje, cuatro explosímetros, bombas de achique, un compresor, armarios de seguridad de carga de botellas, equipo de espeleorescate, lonas de protección, así como la adquisición de un equipo excarcelador.
- Además se ha dotado al personal de dicho servicio con vestuario adecuado tales como buzos para actuaciones diarias, equipación deportiva, cascos, y pasamontañas entre otros.
- Asimismo, se decidió dotar a 20 pueblos de equipos de actuación de rápidos en extinción de incendios consistentes en remolques de carga con su equipación correspondiente, remolques que se cedieron para su uso por los respectivos núcleos.
- A ello debemos añadir, también la adquisición de un vehículo tipo pick-up destinado al mencionado Servicio y así como la gestión del mantenimiento de los vehículos destinados a tal fin.

## 2010eko AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

**Saila:** 10 TOKI ADMINISTRAZIOA ETA LURRALDE OREKA

**Programa:** 14 SUTEEN PREBENTZIOA, ITZALTZEA ETA SABALMENDUA

- Ekitaldi honetan, Arabako Foru Aldundiaren eta Fundación Sueskola Gipuzkoa Fundazioaren artean lankidetza hitzarmen bat sinatu da.

3.- Beste Administrazio batzuekiko lankidetza hitzarmenak

Logroñoko eta Miranda de Ebroko udalekin eta Errioxako Autonomia Erkidegoarekin horien lurraldeetako mugen ondoan dauden Arabako aldeetan prebentzio, su itzaltze eta salbamendu zerbitzua egiteko sinatutako hitzarmenen kontraprestazioak ordaindu dira.

4.- Suteak Itzaltzeko Foru Zerbitzuaren ezarpena

Hainbat jarduera egin dira Arabako Lurralde Historikoan Prebentzio, Su Itzaltze eta Salbamendu foru zerbitzu berria ezartzeko.

### II. PROGRAMATUTAKO HELBURUEN GAUZATZE MAILA

Definitutako helburua Araban suak itzaltzeko, suei aurrea hartzeko eta salbamenduko zerbitzuak behar bezala ematea dela kontuan izanda, helburuaren gauzatze maila egokitzat jo da, sinatutako hitzarmen guztiekin zerbitzua eman ez ezik, SISEU izenekoei baliabide gehiago eman zitzaizkielako eta Aldundiari zerbitzua emateko autonomia handiagoa emango dioten SISEU berriak eraikitzen aurre egin zelako.

## LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2010

**Departamento:** 10 ADMINISTRACIÓN LOCAL Y EQUILIBRIO TERRITORIAL

**Programa:** 14 PREVENCIÓN Y EXTINCIÓN DE INCENDIOS Y SALVAMENTO

- Durante este ejercicio se firma un convenio de colaboración entre la Diputación Foral de Álava y la Fundación Sueskola Gipuzkoa Fundazioa.

3.- Convenios de Colaboración con otras Administraciones

Se abonaron las contraprestaciones derivadas de los Convenios con los Ayuntamientos de Logroño y Miranda de Ebro, y con la Comunidad Autónoma de La Rioja para la prestación del Servicio de Prevención y Extinción de Incendios y Salvamento en las áreas alavesas limítrofes con sus territorios.

4.- Implantación del Servicio Foral de Extinción de Incendios

Se recogen diversas actuaciones en pro de la futura implantación del nuevo servicio Foral de Prevención y Extinción de Incendios y Salvamento en el Territorio Histórico de Álava.

### II. GRADO DE CUMPLIMIENTO DE LOS OBJETIVOS PROGRAMADOS

Teniendo en cuenta que el objetivo que se define es la correcta prestación del Servicio de Extinción y Prevención de Incendios y Salvamento en Álava, el cumplimiento del objetivo se considera satisfactorio, ya que amén de cubrir la prestación del servicio con los diferentes convenios suscritos, se dotó de mayores recursos a las UCEIS existentes y se avanzó en la futura construcción de nuevas UCEIS que darán mayor autonomía en la prestación del servicio a la Diputación.